PORRONTXO
JAIAK
IRAILAK
9 10 14 15 16 17
EGIA
AMETS
EMEA

Agurra

Hemen daude berriro Porrontxo Jaiak. Iaz 25. urtemuga ospatu genuen eta prest gaude beste 25 urtetarako. Beste 25 urte koadrilen batzarren bidez jaiak antolatzeko, jai herrikoi eta partehartzaileak, non denon lanarekin jaiak aurrera ateratzen diren.

Bizi dugun momentu historikoan "yankien" kultura nagusitzen ari da, dena edukitzea posiblea dela sinistarazten gaituen zentro komertzialaren kulturak indibidualismoa txalotzen du, gauzak edukitzea da baloratzen den bakarra, eta hortik, frenorik gabeko lasterketa sortzen da; geroz eta gehiago edukitzeko beharra. Balore horietan elkartasunak, lagunarteko lanak, partehartzeak ez daukate lekurik.

Baina.. Asterixen komikian bezalaxe, herri txiki garaiezin bat izateaz arro gaude eta elkartasuna, harremanak, denon artean eraikitzea, sormena, pentsatzeko gaitasuna, kritika eta autokritika, oraindik garrantzitsuak dira guretzat. Hori da Porrontxo Jaien filosofia eta 25 urte pasa eta gero espero dezagun gazteek eta ondorengo belaunaldiek pentsatzeko gaitasunean, elkartrukean eta beraien jaien jabeak izatean sinisten jarraitzea. Porrotxo Jaiek herrikoi eta partehartzaile jarrai dezaten.

Eta Porrotxo Jaiak hori guztia direlako, gure aurtengo agur berezia Zumalabe Fundazioarentzako eta bere kideentzako da. Herri mugimenduen alde egindako lanagatik. Gure filosofiarekin bat datorrelako.

Era berean, 18/98 makroepaiketa salatu nahi dugu eta auzipeturik dauden guztiei gure elkartasuna adierazten diegu, bereziki Karlos, Mikel eta Patasi, Porrontxo jaien partaide direlako eta beraien partehartzearen beharra dugulako.

ONDO PASA JAIETAN
GORA PORRONTXO JAIAK

LARUNBATA, 9
aurre-porrontxoak

11:00 Egiatik kalejira Porrontxo eta Porrontxarekin, hankapalo,malabarista eta trikitilariekin.
12:00 Sagardo dastaketa eta pintxoak.
14:00 Bertso-bazkaria Estitxu Eizagirre eta Unai Agirre Bertsolariekin, eta gero... jokoak.

IGANDEA, 10

10:30 Porrontxo IX. kros txapelketa plaza berritik, egia, atotxa, epaitegian buelta, mundaiz eskolako sarreran buelta, egia, ametzagaña, maria reinatik karmengo amara eta bukatzen da plaza berrin. Bi buelta ematen dira.

Amaia, Haizea, Hodei eta Zuriñe trikitrilariak auzoa alaituko dute.

OSTEGUNA, 14

17:00 Buruhandi eta erraldoiak Incansables txarangarekin.
17:30 Haur jeitsiera Karmengo Ama kaletik.
18:00 Haurren pilota finalak.
18:30 Haurrentzako PIRRITX ETA PORROTX pailazoen emanaldia Plaza haundin.
20:00 Kuadrilen igoera koadrilek mozorrotuta eta karroak apainduta, Incansables eta Jatorrenak txarangekin. LAIOTZ taldearekin Plaza Haundin.
22:00 ZORABIOAK taldearen ekitaldia Tejerian.

00:00 Jatorrenak Txaranga
01:00 Jokoak.

OSTIRALA, 15
gazte eguna

12:00 Haurrentzat NIKO eta PERIKO pailasoak Donostia Kulturak antolatuta Plaza Berrin.
12:00 Hamaiketakoa mozorrotutaAmaia, Haizea,Hodei eta Zuriñe trikitrilariakin.
14:30 Bazkari herrikoia Plaza Berrin.
16:30 Aldakonea zaharren egoitzan Amaia, Haizea, Hodei eta Zuriñe trikitilariak.
17:00 12-17 urtekoentzat jinkana. antolatzaileak: EGIAKO GAZTE LEKUA,GAZTERI SAILA ETA DONOSTIA KULTURA.
17:00 Jokoak auzoko gine ezberdinetan bertsolariez lagunduta.
17:00 Buruhandi eta erraldoiak Incansables txarangarekin.

18:30 Haurrentzat Herri Kirolak ZURGAI taldeak antolatuta Plaza Berrin Donostia Kulturak antolatuta.
20:00 Egia Kantari eta Amaia, Haizea, Hodei eta Zuriñe trikitrilariak Egian zehar.
20:01 Incansables Txaranga.
21:00 Auzoko taldeen Kontzertua: ORREAGA 778, AZKEN GARRAXIA, ADIKUNE, GATAZKA eta SBKrekin Tejerian.
21:30 Haurrentzako ZEZENSUZKOA Tejeria kaletik.
22:30 Dantzaldia TRAKETS taldearekin Plaza Haundin.

00:00 Batukada auzoan zehar.
01:00 Jokoak.
01:02 Baldarrak Txaranga.
05:00 Txokolate jatea.

LARUNBATA, 16
preso eta iheslarien eguna

08:00 Jatorrenak txaranga.
10:00 Gladys enean haurrentzako jokoak AMALUR taldearekin Donostia Kulturak ekarrita.
11:00 Triki-poteoa Amaia, Haizea, Hodei eta Zuriñe trikitrilariekin.

16:00 Eskubaloi Txapelketa EGIA ESKUBALOI TALDEA antolatuta,
16:30 Kantauri txaranga.
16:30 Buruhandi eta erraldoiak Lagunak txarangarekin.
17:30 Haurrentzako tailerrak Plaza Berrin.
19:00 Antzerkia.
20:30 Haurrentzako zenzenzuskoa Plaza haunditik Plaza berriraino.
21:00 Kuadrilen afaria kafea eta koparekin.
22:30 Kantauri txaranga.
23:00 Dantzaldia IZOTZ taldearekin Plaza haundin.
00:30 Preso eta Iheslarien aldeko KALEJIRA Porrontxa, Porrontxo eta Kantauri txarangarekin.
01:30 KUPELA taldearekin Erromeria Tejerian.
02:00 Incansables Txaranga.
07:00 Oilasko jana

IGANDEA, 17

08:30 Jatorrenak Txaranga.
10:00 Esku-pilota eta pala txapelketen finalak Amaia, Haizea, Hodei eta Zuriñe trikitilariekin.
12:00 Jotak, VOCES NAVARRAS taldearekin, Plaza Haundin

12:32 Sagardo dastatzea Plaza Haundin.
14:30 Bazkari herrikoia Plaza Gorrin. Donosti-Gain, Ur-zaleak eta Arrano elkarteen laguntzarekin.
17:00-18:30 Koadrilentzako jokoak eta Herri kirolak Plaza Haundin.
19:00 Sardina jatea Plaza Haundin.
19:01 Larrain dantza Plaza Haundin
19:02 Erromeria TRIKIZIO taldearekin Plaza Haundin.
20:00 INCANSABLES Txaranga.
21:00 Koadrilen kalejira auzoan zehar INCANSABLES txaranga lagunduta.
22:00 Jaien bukaera: Azken traka eta Porrontxinoaren erreketa.
00:00 gui ar de guol.

EZ APARKATU ~ NO APARCAR

OHARRA: Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue **TEJERIA kaleko goiko aldea** ***ostiral arratsaldetik larunbata gaua arte*** (Koadrilen afaria dela eta) ez aparkatzek. Mila esker.

NOTA: Se solicita la colaboración de l@s vecin@s propietari@s de los coches para que en la **parte al ta de la calle TEJERIA** no aparquen desde ***el viernes a la tarde hasta el sábado a la noche*** (por la cena de cuadrillas).Muchas gracias.


PORRONTXO JAIAK
IRAILAK
9 14 15 16 17
EGIA
2006

IRAILAK
9,10,14,15,16,17
EGIA
PORRONTXO JAIAK
2006